

PERTSONAIAK

YOLANDA ARRIETA IDAZLEA

«Gustuko ditut zehar-erretorika eta ironia»

Testua: Patxi Sarriegi

Gaur egungo gizarte post-modernoan nola bizi dugun askatasuna eta askatasun horren alderdi argi-ilunak, Yolanda Arrietak idatzitako azken eleberraren muina. Eraikin batean kokatu ditu egileak liburuko istorio guztiak, eta sartu-irtenean ibili da, ikusle, aldi bateko biztanle, bisitari edota entzule gisa. Bere esanetan, liburua ez da amaitutako istorio bat, asko baizik. Era horretara, hiria eta askatasuna bikotea buruan, ahalik eta biztanle gehien erabili ditu Arrietak kontakizunean, ikuspegi eta jokabide ezberdinak sartu asmoz, izenburuak dakarren argi-ilun sentsazio horri erantzunez.

'Off-On' izenburuko eleberripuzblea argitaratu berri duzu. Nondik nora hasi zinen liburu hau idazten?

Duela urtebete inguru modu jarraituan, Gipuzkoako Foru Aldundian literatura sortzeko diru-laguntza bat eskatu nuenean, proiektua antolatzen hasi nintzenean, baina, hazia, hots, sentsazioak, ideia, nahia... bizpahiru urtetan sortzen joan den prozesu bat izan da.

Liburua ez da amaitutako istorio bat, asko baizik. Ba al dute beren artean loturarik?

Batzuk bai, beste batzuk ez. Eraikin batean kokatu ditut denak eta ni sartu-irtenean ibili naiz, ikusle, aldi bateko biztanle, bisitari edota entzule gisa. Pisu bakoitzeko e-txe bakoitzean biztanle bakoitzak zati bat kontatzen du eta familiei dagokienez, partaide guztien zatiak irakurtzean bakoitzari buruzko informazio gehiago lor dezake irakurleak. Horrez gain, badaude pertsonaien arteko lotura asko, pisu arteko konexio-deskonexioak ere, edozein eraikinetan gertatzen direnak bertako jendea ezagutzen hasten zarenean...

Zein da liburuak jorratu nahi duen muina?

Gaur egungo gizarte post-modernoan nola bizi dugun askatasuna, hots, askatasun horren alderdi argi-ilunak. Tradiziotik salto egin eta imaginario hiritarran gizakiaren askatasuna bilatzen dugu, hau da, nolabaiteko hiri mentalitate bat, non subjektu bakoitzak berak aukeratzen baitu zer bizimodu egin nahi duen, tradizioak edota tribuak ezarritako paper, rol eta jokabideei amen egin gabe. Hortik izenburu iradoki-tzaila: Off, alegia, kanpo, solte, itzalita, anonimatuan egotearen alderdi ON-a, eta, era berean, Off-On, batzuetan itzalita, hurrena piztuta, eredu argirik gabe,

EREINEK ARGITARATUTAKO 'OFF-ON' ELEBERRI PUZZLEA IDATZI DU YOLANDA ARRIETAK. EREINEN BAKANAK SAILEKO 11. ZENBAKIA DA



Yolandak azaldu digunez, konplizitate-harremana sortu nahi izan du irakurlearekin, irakurle aktibo baten aldeko apustua eginez.

egitura finkoegi gabe, nolabaiteko intermiten-tzian bizi dugu egungo garaia.

Testu laburrak ageri dira bertan, hitz gutxirekin indarra esaten ez den horretan jarri nahi izan duzu. Zer dela eta?

Gustuko dut laburrean idaztea, zehar-erretorika eta ironia, jende batekin gauzak erdizka edota metafora bidez esanez sortzen den konplizitatea. Dibertigarria iruditzen zait asmakizun antzeko jokoan aritzea. Literatura, irakurlearekin sortzen duzun harreman-joko bat ere badela-

ko. Hala ere, testuak bere horretan ere irakur daitezke, ziur nago irakurle bakoitzak bere zentzua aurkituko duela, ezereen bila joan gabe ere, konplizitate hau oso inkonziencia delako. Beraz, jendeak irakur ditzala testuok, lasai, atzekoz aurrera edo jarraian, banaka-banaka edo nahi duen moduan, unea gozatuz... uretan balego moduan.

Zein irakurle mota izan duzu buruan liburu idazterakoan? Nolako harremana sortzea nahi zenuke irakurlearekin? 23-60 urteko jendea izan dut gogoan, hel-

dua izateko bidean dabilena edota heldutasun bide horren erdi-erdian dagoena... Konplizitate-harremana sortu nahi izan dut, irakurle aktibo baten aldeko apustua egin dudala esan daiteke; hori ikuspegi murriztailea ere izan daiteke, bakoitzak bere erara interpretatzen duelako errealitatea, eta kasu honetan, batzuk nire jokoaren ehuneko 80a jaso arren, beste batzuk beste irakurketa bat egingo dute, nire ikuspegiarekin zerkusi handirik ez duena. Beraz, bakoitzak bizi dezala esaten dudana nahi duen moduan, liburua, dagoeneko, ez baita nirea; irakurleona, baizik.

Haurrak, gazteak, bikoteak, helduak, zaharrak... era askotako pertsonaiak azaltzen dira liburuan zehar.

Bai, eta objektuak, aldarreak, ikuspegiak... Eraikinaren egiturak asko lagun du dit horretan. Batetik, errazago eta libreago utzi nahi nuen neure burua sortzeko prozesuan, eta, bestetik, hiria eta askatasuna bikotea nituelarik buruan, ahalik eta biztanle gehien erabili nahi nuen, ikuspegi eta jokabide ezberdinak sartu asmoz, izenburuak dakarren 'argi-ilun' sentsazio horri erantzunez.

Helduentzako narratiba nahiz haur eta gazteentzako ere jorratu dituzu argitaratutako hainbat liburuan. Non aritzen zara erosoago?

Bietan, biak dira sorkuntza, biak dira literatura. Norekin ari zaren da kontua, batzuetan neure alderdi helduarekin, besteetan neure alderdi gazte edo umearekin... Denak daude neure barruan eta batarekin zein bestearen aritu, informazioa nola jaso eta kudeatzen duan da kontua, eta, noski, gero informazio hori irakurlearengana iristeko moduan kudeatzea, egituratzea eta kontatzea. Literatur generoa baino gehiago enpatia kontua dela uste dut, nahiz eta, ezin uka, idazleok ere merkatuaren sistemako partaide izan.

Liburu honetan nabarmenduko zenukeen pasarterik...

Askatasunaren eta askatasun horrek pertsonaiengan sortarazten dituen argi-ilun horiek biltzen dituen '5A-ko Gizakia' (51. or); bestalde, neure askatasun-aukera, artean aurkitzen duan utopia, ametsa: 'Zeru, izarrarte, izartegia' izenburua duena.

Esaldi motzak eta akzioz eta irudiz besteak erabili dituzu. Zer bilatu nahian?

Zentzuen bidezko irakurketa emozionala; instante motz indartsuen uneko zaporea eta ondorengo arrastoa. Bonboi baten efektua.